

BERRIGARA


zenbakia JARDUN Elkartea Bergara 1994, uztailak 8



Justo Garate Argentinan hil da



LARRAÑAGA Autoeskola



Artakale, 22. Tfnoa: 76 16 63. BERGARA



GUIPUZCOANA

Paketean garraio eta banaketa

BERGARA

San Juan Erreka. Elgetara bidea.

Tfnoa: (943) 76 36 42 / Faxa: (943) 76 54 25

Z E R B E R R I D A ?

MILA AGIRREZABAL

Udal Libuturegiko
arduraduna**- Zer eskaintzen du
"Biblioporrak" pro-
gramak?**

- Haurren artean irakurketa indartzeko jarri da martxan 4 udal liburutegi eta Eusko Jaurlaritzaren artean "Biblioporrak" programa. Uda garaia irakurtzeko garai aproposa denez, 1993 eta 1994an argitaratutako liburuen artean aukera bat egin eta eskaintza bat plazaratu dugu, haur eta nagusiek euskara eta erdarazko liburuak aukeratu ditzaketelarik.

- Bergaran, zein erantzun jaso duzue orainarte?

- Ona, batez ere 8 eta 12 urte bitarteko haurrak etorri dira orainarte; beste edade



batzutako jendea ere etorri izan da eta guztiei Udal Liburutegira hurbiltzeko eskatuko genieke, bertan dauden liburuak ezagutzeko. Liburu bat ateratzeko, 2 argazki ekarri eta karneta egitea besterik ez da behar. Eta ez dago inolako adin-mugarik, ezta dirurik ordaindu beharrik ere.

**"Irakurtzeko garai aproposa denez,
'Biblioporrak' jarri dugu martxan"**

I T U R R I O N E T I K

**Bergara K.E.ko futbol taldea
uztailaren 28an aurkeztuko da**

Bergara K.E.ko futbol talde nagusia uztailaren 28an aurkeztuko da. Datorren asteazkenean, hilak 13, entrenatzen hasiko da Javi Pérezen taldea eta aurkezpena egin ondoren, jokalaria eta entrenatzaileek abuztuaren 16ra arte porrak izango dituzte. Fitxaketei dagokienez,

Garro (Mondragon), Zuazua (Zarautzen jokaturako eibartarra), Amador atezaina eta Carrasco (Eibar Urko) izango ditugu aurpegi berriak. Era berean, Iñigo Zaitetik zuzentzen duen direktibak Iker Balzategi arrasatearraren fitxaketa lortzeko asmoa dauka.

E S A N
D U T E

"Justo Garate, gizona, atsegina eta prestua izan da oso. Ikaragarri jakintsua, mende honetako historiaren gordailu agortezina izan da eta mende

horretako pertsonaierik haundienak aztertzeaz gain idatzizko harreman handia izan du besteak beste Julio Urquijo, Unamuno, Baroja, Luis Eleizalde, Marañon, Jose Antonio Agirre, eta Viar eta Guimon doktoreekin.

Horiekiko korrespondentzia oso erabilgarria izan daiteke etorkizunean. Ez naiz ni jaso dituen ohore eta aipamen berezien berri ematen hasiko. Bat aipatzekotan Bergarako Udalak bere ohorez eta bere izenarekin sortu duen bekarena aipatu behar, horretxi eman izan baitzion berak baliorik haundiena.

Tamalez, gaur egungo gazte gutxi ezagutzen dute.

Oraindik asko ez dela, batek galdetzen zidan, eta intelektuala da bera, "baina oraindik bizi al da jaun hau?"

Bizi da bai, eta atzerriturik bizi da uztail honen 3ko goizalderarte. Goian bego".


ELIAS AMEZAGA
Idazlea
EL MUNDO DEL PAIS
VASCO



Aidizkari honek
Bergarako Udalaren
laguntza jaso du



Aidizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aidizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura
sailaren laguntza jaso du

PERSECUCION MORTAL
 Ostirala: 22.30.
 Larunbata: 22.30.
 Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.
 Astelehena: 19.30
 (Ikuslearen eguna).

Zinea

▼▼ **Rowdy Herringtonek** zuzendutako filme honetan, *Tom Hardy (Bruce Willis)* eta *Jo Christman (Sarah Jessica Parker)* poliziek Pittsburgheko hiru errekak patruilatzen egiten dute lan. Egoera honetan, *Tom Hardy* bere familia eta bere profesionalitate eta ohorearen arteko aukeraketa egitera behartuta izango da...

Deiak

▼ **Benita Gallastegi** eta **Kimu Arrutiren** margo erakusketa Nahikari tabernan.

▼ **Rosa Azkue** sendagilearen "Enfermedades más frecuentes del verano en la tercera edad" hitzaldia asteazkenean 5etan Jubilatuetan.

▼ **Mendi irteera.** Igandean, hilak 17, Monkaiora egun osoko irteera afizionatu guztientzat. Izenematea Pol-Polen.

Ogia

▼ **Igandea 10:** Ogizun.

GOARDIAKO FARMAZIAK

▼ **Larunbata 9:** Guallar.
 ▼ **Igandea 10:** Guallar.
 ▼ **Astelehena 11:** Estella.
 ▼ **Asteartea 12:** Mozos.
 ▼ **Asteazkena 13:** Camacho.
 ▼ **Osteguna 14:** Puy.
 ▼ **Ostirala 15:** Guallar.

Orfeoi Gaztea eta Bergarako Orfeoiaren emanaldia izango da larunbatean 8etan San Pedron. Aintzane Arana eta David Azurzak zuzendutako taldeek Weelkes, Urretxindorrek, Sund, Busto, Schubert edota Parryren piezak eskeiniko dituzte. Pianojoleak Maria Egaña (Orfeoi Gaztearekin) eta Elizabeth Mendaraz izango dira.



TXISTU MOTOR

**KOTXE BERRIZKETAK
 SKODA ZERBITZU BERRIA**

Volkswagen t Idea

Aribar Poligonoa. San Juan auzoa
 ☎ 76 09 31 BERGARA

ARREGUI, E.M.

AROSZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
 - PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20. 76 11 73
 Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

OIHALAK

Zubieta, 32 ☎ 76 11 50

Gidarien patroia

SAN KRISTOBAL

Igandea, kotxeak bedeinkatzera San Kristobalera hurbiltzeko eguna

Atzo hasi eta igandera arte San Kristobaleko jaiak ospatuko dira Angiozarrera bidean dagoen izen bereko auzoan. Ostegunean ohizko pinua jarri eta gazteentzat txokolatada bat izan ondoren, gaur ostiralerako Lotxo taldearen dantzaldia iragarrita dago gaueko 11etan. Bihar larunbata, berriz, Luhartz taldeak alaituko du gaueko dantzaldia eta igandean, uztailak 10, San Kristobal eguna ospatuko da.

Eguerdiko 12etan Meza Nagusia izango da eta ondoren kotxeen ohizko bedeinkapena egingo da. Jarraian jubilatuentzako luntxa eta eguerdiko ordubatean kukainak. Ondoren dantzarien emanaldia izango da eta hor izango dira, besteak beste, Eduardo Muruamendiaraz eta Amaia Agirre bergararrak, ekainaren 19an Seguran Eus-



Astebukaera osoan zehar hainbat ekitaldi antolatu dira San Kristobalen. Igandean kotxeen bedeinkapena egingo da Meza Nagusiaren ostean.

kadiko Dantza Askatuko Txapelketa eskuratu berri dutenak.

San Kristobal gidarien zaindaria izan dugu betidanik. Istorioak dioenez, San Kristobal jendea ibaiaren alde batetik bestera

pasatzen ibiltzen zen. Egun batean haur bat zeramala eta errekararen erdian zihoanean, umearen pisua gero eta jasan ezinagoa egin zitzaion Kristobal haundiari. *"Ezin zaitut eraman"* esan zion haur txikiari. Ume hura... Jesus zen.

Ohitura galtzen badoa ere, aurten ere lorez apaindutako kotxe, kamioi eta autobus ugari ikusi ahal izango dira San Kris-

tobaleko ermitaren inguruan. Gidari guztien zaindaria bada ere, kamioi gidariak bereziki estimatzen dute eta kamioi gehienek Santuaren figura txoa daramate errepidean "susto"rik ez izateko.

Igande honetan ere, eta aurreko urteetan bezala, Don Jose Mariak hainbat ibilgailu bedeinkatuko ditu igande goizeko mezaren ostean. Ez dadila tradizioa galdu...

Eduardo Muruamendiaraz eta Amaia Agirre bikote txapelduna, igandean

Zure konfidantzako denda

LASAGABASTER

Tfnoa: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

"Erretratu zaharra" sailaren inguruan

BERRIGARAko zuzendariari:

22 urteko gazte bat naiz eta "Erretratu zaharra" sailari buruzko karta bat idatzi nahi nuke. Nire ustez aldizkariko sekziarik onenetarikoa da eta, periodikuekin egiten dudan bezala, askotan atzetik aurrera hasten naiz "Berrigara" irakurtzen. Baina nere edadeko jendea sarriagotan azaltea botatzen dut faltan.

Badakit ez dela batere erreza argazki ezberdinak bildu eta, are eta gutxiago, beharreko informazioa jasotzea. Baina gu gazteagoak, haurrak gineneko argazki mordo bat dira nonbait eta gustatuko litzaidake horrek zuen orrialdetara ekartzea.

Ez dakit Udaletxean edota ikastetxe ezberdinetan artxibo fotografikorik izango duten, ez dakit bertara jo duzuen argazki bila baina ideia bat ematearren idazten dizuet. Kajoietan gordeta dauden milaka argazki horiek argia ikus dezaten. Zuen orrialdetan bada, askoz hobe, testu batez apaindu eta gure artxibo propioa egin ahal izateko aukera izan dezagun. Besterik gabe, eskerrik asko nere karta publikatzeagatik.

JON LARRAÑAGA

San Martzialeko ermitako konponketak

Aurreko domekan San Martzial ermitan egin berri diren obrak ikusi ahal izan genituen eta benetan zoriontzekoa da baten batzuk hartu duten lana. Auzolanean lan benetan bikainak egin daitezkeela frogatu digute berriz ere eta ermita benetan dotore gelditu dela aitortu behar dugu.

Berrigara aldizkariak Juan Idigorasi egin zion entrebistaren bitartez, lanen kostoa jakin izan dugu. Lanek diru gehiegi kostatu ez duten arren, horiei aurre egiteko oraindik ez da nahi beste diru jaso. Gure ondarea babesteko ezinbestekoak ziren berrikuntza lan horiek eta orain paraje hori hainbeste apreziatzen dugunoi ahal den neurrian laguntzea tokatzen zaigu.

Dena den, egun hauetan ez da batere erreza dirua batzea eta ez dakit erakunde ofizialetatik zer nolako dirulaguntza jaso den. Ez legoke gaizki ate guztiak jo eta ea zer nolako erantzuna jasotzen den ikustea. Ea guztion artean honelako lan gehiago aurrera ateratzen ditugun bestela betikoak ere aspertu egingo zaizkigu eta.

ANDRES JAUREGI

Tiira biraka

GORKA ORTEGA & JON ALVAREZ



Udal aurrekontuak onartu zituen astelehenean Udalbatzak

2.094 milioitako aurrekontuari EAJ eta PSE-EEK baietza eta EA eta HBk ezetza

Asteleheneko ezohizko Osoko Bilkuran onartu ziren 1994ko udal aurrekontuak. Udal Gobernua osatzen duten bi alderdien botoek eman zioten onarpena aurten go aurrekontuei; HB eta EAK ezezko botoa eman zieten.

Guztira 2.094.481.590 pzta.ko aurrekontua izango du Udalak (iaz baino 200 milioi inguru gehiago). Finantz zama berria % 21,6koa izango da. Aurrekontuetan, Udalaren beraren eta Mizpirualde egoitzaren eta Udal Euskaltegiaren aurrekontuak biltzen dira. Aurten lehen aldiz euskara hutsean idatzi dira aurrekontuak.

Victoriano Gallastegi alkateak aurkeztu zituen Udal aurrekontuak eta aurtengo presupuestoak bizi dugun krisi egoera kontutan hartuta osatu direla esan zuen. Bergarako Udalak azkenenengo bi urteetan Udal Finantzaziorako Foru Fondotik 160 milioi pzta. gutxiago jaso duela gaineratu zuen alkateak eta zerbitzu askotan presupuesto murrizketak izango zirela eta batzuk desagertuko zirela gehitu zuen.

Iazko aurrekontuekin konparatzen badugu, pertsonal gastuek iaz presupuesto osoaren % 28a hartu zuten eta aurten % 26a eta inbertsioak iaz % 30a eta aurten %

34a. Udaletxearen obrek eragin dute igoera hori. Bestalde portzentaiei begiratzen badiegu, iazko presupuestoekiko portzentaliki igotzen duen komisio bakarra kiroletakoa da. Beste guztiek behera egin dute. Kulturak presupuesto osoaren % 5,64a jasoko du aurten; Hezkuntzak 3,69; Jaiak 1,12; Euskarak 2,20 eta Kirolak 6,22.

HB: osoko emendakina

HBk osoko emendakina presentatu zuen. HBko Udal taldearen iritziz, "ezin diogu oneritzia eman aurrekontu boni. Hau, 1994.era aurrekontua baino, datozen urteetarako entzerrona bat delako, finantza karga oso haundia delako eta Bergarako herria nahiz gerora egon daitekeen gobernu batzordea hipotekatzen dituelako".

HBren emendakina demagogia hutsa zela adierazi zuen alkateak eta 1991tik hona finantz zama 2 puntutan bakarrik igo dutela gehitu zuen. HBren emendakina ez zen onartua izan. HBk baietz botatu zuen EA abstentitu egin zen eta EAJ eta PSE-EEK ezezkoa eman zuten.

Juan Daniel Kortabariak HBren izenean zera adierazi zuen: "Udaleko interbentoreak esaten duena bat dator guk esa-



Udaletxeko obren eraginez, aurtengo presupuestoek gora egin dute.

ten dugunarekin aurrekontuen partida batzuei buruz. Beraz arrazoia ematen digu".

PSE-EE: Ikastolei ematen zaien dirua kendu

Alvaro Esparza PSE-EEren ordezkariak emendakin partziala presentatu zuen. Herriko ikastolei (Aranzadi eta Mariaren Lagundia) Udalak ematen dien 22 milioitako dirulaguntza kentzea eskatu zuen. Proposamen hau ez zen onartu. EAJ eta EAK kontra botatu zuten, HB abstentitu egin zen eta PSE-EEK baietz botatu zuten.

Bestalde, JARDUN eta BERRIGARAREN dirulaguntzarekin eta KIUB zerbitzua kentzeko Udalak hartutako erabakiarekin ezadostasuna agertu zuen Esparzak.

EA: "Politika arriskutsua"

Juan Mari Garitanok EAren izenean aurrekontuak beranduegi jaso dituztela kritikatu zuen eta Udaletxearen birgaitzean egindako inbertsioak Udala hipotekatzen zuela adierazi zuen.

Garitanok gastu publikoaren murrizketa (% 15a), Udalak ordaintzen dituen interes tasen murrizketa eta herrian botatzen diren arbolak birlantatzea eskatu zituen. Era berean, herritar batzuk urtasak ordaintzerakoan zerga gehigarriak ordaintzen zituztela eta, Udal Gobernuari arazoa konpontzeko eskatu zion. EAren proposamenak ez ziren onartu. EA eta HBk baiezkota eta EAJ eta PSE-EE, ostera, ezezko botoa eman zuten.

◆ Bedelkarreko zozketa

Bedelkar Bergarako Dendarien Elkartek San Martzialen eginiko zozketan, 125.315 zenbakia (Gaztelu burdina-kidendan banatuta) lehen sariarekin (250.000 pta.) izan da saritua. 189.658 zenbakiaren jabeak (Izadi dietetikan emana) bigarren saria (100.000 pta.) eramango du eta 21.971 zenbakiak (Anezka ohialdendan banatua) hirugarrena (100.000 pta.ko pentsio plana). Hilabete barru boleto sarituak agertuko ez balira, 192.366, 65.753 eta 2.750 zenbakiak eskuratuko lituzkete sariak goian aipatutako orden berean.

◆ Prorroga berriztea

Bergarako Udalak jakin arazi duenez, ikasten diharduten mutilek eskatu beharreko Soldaduskarako prorrogak berrizteko epea zabaldu da. Horretarako eskariak Bergarako Udaletxean uztailaren 22a baino lehen edo Donostiako Erreklutamendu Zentruan uztailaren 31a baino lehen aurkeztu beharko dira, ondoko agiriekin: Ikastetxearen egiaztagiria edo matrikula agiria, N.A.N.ren fotokopia, sobre zuri bat 29 pta.ko seiluarekin eta Udaletxean emango duten eskabide-orria.



Ikasleen euskara maila indartzeko asmoz, irailean hainbat ekintza antolatu dira.

JARDUNen Antxintxika programa

8. mailako B eta D ereduetao ikasleei zuzenduta

JARDUN Elkartek 8. mailako B edota D ereduetao ikasleei zuzendutako Antxintxika programa kaleratu du. Programa honek ikasleen euskara maila indartzea du helburu, aurrerantzean ikasketak inolako arazorik gabe euskaraz burutu ahal izateko. Horrela, irailaren 7tik 25era bitartean hainbat ekintza iragarri dira: goizean 10etatik ordu batera euskara lantzeko iharduerak egingo dira, ordu batetatik 4retara bazkaria eta jokuendako denbora libre izango da eta arratsalde, berriz, ekintza ezberdinak, tartean

eskulanak, kirolak, etab.

Horrez gain, asteburuetan Bergaratik kanpo irteteko asmoa dago eta bi asteburu izango direnez, bata mendian eta bestea itsasaldean igaroko da. Izen emateko interesa dutenek JARDUN Elkartera (Masterreka 13, 76 08 19 telefonoa) jo dezakete uztailaren 15a baino lehen. Izen emateak 11.000 pta. balio du, iharduera guztiak, janariak, egonaldiak eta aseguruak barne. Arratsaldeko eta astebukaeretakoa ihardueretarako izen-ematea 6.000 pta.koa da.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta, 16 BERGARA ☎ 76 23 94 - 76 12 65

ZUBIAURRE

aroztegia

SARRERAKO ETA BARRUKO ATEAK.
HORMA ARMAIRUAK.
EGURREZKO ETA PVC-ZKO LEIHOAK.
ERA GUZTIETAKO AROTZ LANAK.
Zubiaurre, 2 ☎ 76 15 14 / 76 35 73

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

Rincones

ANTZINAKO GAUZAK
DEKORATZEKO IDEIAK

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxa: 76 52 98



Merkatukoek ibilgailuak espoloiraino sartu ahal izatea eskatzen dute.

Merkatu txikiarekin arazoak

Zurraderoko garajeetan kalteak prebenitzeko

Zurradero kaleko garajeetan larunbateko merkatuarekin izandako arazo batzuk direla medio, aurreko larunbatean ez zen kinkilleroen merkaturik izan eta Udaltzaingoaren arabera, *"larunbat honetan ere ziurren ez da egongo"*.

Garajeetako jabeek beren kezak azaldu dituzte larunbatean, merkatuarekin batera etortzen diren ibilgailu guztien eraginez, garajeetan kalteak izateagatik. Udaleko Gobernu Batzordeak, egoera honen aurrean, merkaturia zabaltzeko baino ordubete lehenago eta

merkaturia amaitutakoan Zurradero kalea trafikorako moztea erabaki du karga eta deskarga egiteko baina merkaturioek, mugitu behar dituzten pisu haundiak direla eta, espalora bertaraino sartzea eskatzen dute. Jabier Gabilondo Batzordeburuaren hitzetan, *"etorkizunean sor litezkeen kalteengatik bartu da neurri hori, izan ere merkaturia kokatzen den tokiaren azpian garajeak daudenez, ez da komeni bertan ibilgailuak eta pisu haundiko ezer ere egotea. Neurri prebentibo bat izan da"*.

◆ Langabetuentzako ikastaroa

Udalak 18 urtetik gorako langabetuei zuzendutako *"Zoruen eta isolamenduen instalazioak, lijaketa eta kutxilaketa lanak"* ikastaroa antolatu du irailetik martxora bitartean. Izen-ematea uztailaren 27an amaituko da. Informazio eta izen-ematea goizez Irizar Jauregian.

◆ EAJren oharra

Bergarako EAJk autobusa antolatu du datorren ostiralean, hilak 15, Ikurriñaren 100. urteurrena ospatzeko Bilbon egingo den ekitaldira joateko. Autobusa 18.15etan Beheko Estaziotik aterako da. Izen-ematea Batzokiko tabernan.

◆ San Martzialak

Iñaki Labaka osintxuarrak San Martzialen jokaturako txinga proba irabazi zuen, 50 Kg.ko bi txingekin 7 plaza bete ondoren.

Sokatiran, Txontxongilo (emakumezkoetan) eta Montxorro (gizonezkoetan) nagusitu ziren.

◆ San Martzial Txiki

Igande honetan, uztailak 10, Musika Eskolako ikasle, irakasle eta gurasoek San Martzial Txiki eguna ospatuko dute.

KIZKUR



**Ileapaindegia
Solariuma**

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketak.
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINITZA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

**A
U
T
O
A
K**

ETXAGI

**Jatetxea
Afariak-Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak-Bazkariak**

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

Legedia

Udako bidaiak

- Bidaiak prestatzen hasi da jendea. Anulazio kasuak ere egoten dira noizbait. Zer dio legeak horri buruz?

- Ajentzia batekin bi zerbitzu kontratatu daitezke: zerbitzu solteak edota pakete turistikoa (zerbitzu osoa, hain zuzen, bidaiaria, estantzia eta egon litezkeen eskurtsioak barne). Zerbitzu solteak anulatzekotan, bidaiaria behar bezala justifikatutako jestio gastuak eta anulazio gastuak ordaindu beharko lituzke.

Pakete turistikoei dagokienez, berriz, bidaiaria egun aurretiko 10-15 egun bitartean anulatzen bada, koste osoaren % 5a galtzen da; 10 eta 3 egun bitartean anulatzen bada, % 15a eta azken 2 egunetan egitekotan, % 25a. Eta azken momentuan bidaiaria ez bada agertzen, dena galduko luke, ez beharren bategatik (causa de fuerza mayor demostrable) izan dela frogatzen ez bada behinik behin.

- Apartamentu edota hotelekin zer gertatzen da?

- Apartamentua partikular bati alokatu ezker, bi aldean arteko akordioa izaten da. Enpresaren bati alokatzekotan, berriz, ajentzia bitartekaria litzateke eta antizipo bat eskatu ohi da normalean: % 40a alkilerria hilabete baino gutxiagokoa denean, % 25a hilabete baterako denean eta % 15a hibaleten bat baino gehiagoko kasuetan. Anulatzekotan, antizipo ho-



ALFONSO ALONSO
(KIUBeko arduradun izandakoa)

rren % 5a galtzen da anulazioa 30 egun aurretik egiten bada, % 50a 7 egun aurretik egiten bada eta 7 egun baino gutxiago falta direnean % 100a.

- Prezio aldaketak ere izaten dira...

- Bidaiaria hartuta badukazu eta prezioak %

15a gora egiten badu, atzera egiteko aukera daukazu, jestio gastuak eta anulazio gastuak ordainduz bakarrik. Prezio aldaketak moneten kanbioan fluktuazioak edota garraio tarifetan aldaketak izaten direnean egon daitezke bakarrik.


- Eta zerbitzuak agindutakoak baino eskasagoak badira?

- Hotela okupatuta egotea gertatzen da zerbaitetan (*overbooking* kasuak) eta ajentziak eskeinitako zerbitzuak emateko obligazioa daukate. Kasu horretan bi aukera leudeke: ez emandako zerbitzu hori dirutan errekuperatzea edota antzerako zerbitzu bat eskaintzea (kategoria baxuagokoa izatekotan, dagoen alde hori dirutan errekuperatuko litzateke). Beti ere, erreklamazioa aurkezteko aukera egon behar da bai bidaiaria egiterakoan eta bai bueltan, bidaiaria ajentzietan. Erreklamazioak egiterakoan administrazioa sartzen da tartean eta askotan multa ezberdinak administrazioari ordaintzen zaizkion arren, kontsumitzaileek, gustora ez badaude behintzat, erreklamazioak aurkeztu beharko lituzkete kontsumitzaileen bulego ezberdinetan, horrela, etorkizunean, zerbitzu hobea jaso ahal izateko.

"Bidaia 10-3 egun lehenago anulatzen bada, koste osoaren % 15a galtzen da"



Overbooking kasuetan, ajentziak eskeinitako zerbitzuak edo antzerakoak emateko obligazioa daukate.



Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK

Mujika

Jantzidenda


Barrenkale 1, Tfnoa: 76 29 91

LIZAR



altzariak

Dr. Fleming 5, Tfnoa: 76 16 53




TRIKITIXA ESKOLA


SOINUA eta PANDEROA

DATORREN IKASTURTERAKO AURREINSKRIPZIOA

- KURTSO HASIERA: **1994ko irailaren 21a**
- KURTSO AMAIERA: **1995eko ekainaren 10a**
- MATRIKULA EPEA: **1994ko irailaren 9a**
- ORDUTEGIA:
 - **Asteazkenetan: 16.00-20.00**
 - **Larunbatetan: 9.00-14.00**
- KUOTA:
 - **1.800 pzta PANDEROA**
 - **2.500 pzta. SOINUA**



Ezagutu ezazu **LILURAn** benetako ongizatea



**GURE MEDIKU
ESPEZIALISTEKIN**

ESTETIKA ESPEZIALIZATUA

Mediku homeopatekin elkarlanean jarduten dugu medikuntza estetiko eta prebentiborik eraginkorrena lortzeko.

Etor zaitez Bidekurutzeta kaleko 7 zenbakira edo deitu 76 31 71 telefonora, goizeko 9.30etatik iluntzeko 8.30etara astegunetan edo 9.30etatik 14.00etara larunbatetan.

Zure edertasuna zure osasunaren pareko delako, biak era pertsonalizatuan zaintzen ditugu.

LILURAn, zeure arazo pertsonala diagnosticatuko dizugu, doan.

ABUZTUAN ZABALIK!!
Asteleheneetik ostiralera (9.30-19.30)

Bergarar unibertsalari azken agurra

Justo Garate Arriola 93 urte zituela hil zen zapatuan

Justo Garate pasa den larunbatean hil zen Mendozan (Argentina) 93 urte zituenean. Bergaran jaiotako jakintsuak medikuntza ikasketak burutu zituen, baina bere jakinnahiak hainbat gai ikutzera bultzatu zuen. Pasa den urtean, Bergarako Udalaren laguntzaz, "Un critico en las quimbambas" argitaratu zuen. Liburuan Justo Garatek idatzitako autobiografia irakur daiteke eta bertatik laburpen bat egin dugu.

Justo Garate 1900eko abuztuaren 5ean jaio zen Bergaran eta 1901eko abenduan bere gurasoekin Argentinara joan behar izan zuen. 1906ko apirilean berriz Euskal Herrira bueltatu eta 1907an Garate familiak Zubietan erosi zuen etxea. 1910ean Dominikarren Eskolan sartu zen eta berak bere autobiografian dioenez. "Garai haietan asko irakurtzen nuen eta hainbat irakurketa lehiaketatan parte hartu nuen. Gogoratzen dut, lehiaketa batean Fray Luis de Leonen, "Que descansada vida" oda buruz ikasi behar izan nuela. Saria irabazi arren, Los Martires de Uganda liburua, inoiz ez nuen jaso".

1914an Garate hizkuntzak ikasteko gaitasuna adierazten hasi zen eta horrela "Les Morceaux Choisis" liburu frantsesa

euskaratu zuen. Batxilergo ikasketak amaitu ondoren, 1917an, medikuntza ikasketak egitera Valladolidera joan zen eta

bitartean, bere kontura, alemana ikasteari ekin zion. 1919an Bartzelonara joan zen eta han bi urte eman zituen. Bartzelonan Telesforo Aranzadirekin ere topo egin zuen. 1920an bere ama hil zen eta uda hartan Elgoibarrrera joan behar izan zuen, bertan ingelesa ikasten hasi zelarik eta 1921ean medikuntzako 4. urtea bukatu ondoren, udan Bergarara etorri zen eta euskara ikasketak sa-



Justo Garate, bere familiarekin, Mendozako etxean 1991ko Gabonetan. Ezkerretik eskumara: Nerea eta Amaia (Justoren alabak), Justo, Itziar emaztea eta Xabier semea.

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



GAZTELU
Burdinaki denda

Mintegi 1, Tfnoa: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA



Justoren asmoa bere bizitzako azken urteetan Bergarara itzultzea zen.

1954an Mendozako Medikuntza Fakultatera irakasle joan zen eta ondoren hainbat tokitara egin zituen bidaiak.

Euskal Herrira bueltan

1977ko urrian Euskal Herrira etortzeko aukera izan zuen, Leioako Unibertsitateak gonbidatuta. Bertan, Medikuntza Fakultateko Ohorezko Irakasle izendatu zuten, berau fundatu zuelako. 1978an Euskaltzaindiak Ohorezko Akademiko izendatu zuen eta 1982ko abuztuan berriz etorri zen Euskal Herrira abenduan EHUK Doctor Honoris Causa izendatu zuelarik. 1987an 3. aldiz etorri zen Eusko Ikaskuntzak gonbidatuta, 1933tik 1936ra bitartean Zuzendaritza Batzordekoa izan baitzen. Urte horretan Bergarako Udalak bere jaiotetxean plaka bat jarri zuen. 1992an *"Un critico en las quimbambas"* liburuan Justo Garatek idazten duen parrafo batekin amaituko dugu. *"Mendozan, nire bizilekuan, maitasunez gogoratzen dut Bergara. Gustatuko litzaidake betirako presente izatea bi hirietan eta biekin gogora nazatela gizateriaren destinua arduratuta bizi izan den pertsona baten moduan eta egin duen guztia gizateriaren alde egin duen pertsona bat bezala"*.

Gerra garaiak

1928a bere autobiografian adierazten duen bezala, urte garrantzitsua izan zen Justo Garaterentzat. Martxoan bere aita hil zen eta irailaren 17an Itziar Arostegi durangarrarekin ezkondu zen. 1930ean Bilboko Aurrezki Kutxa Municipalak emandako beka bati esker Munichera joan zen minbiziari buruz ahalik eta gehiena ikasteko asmoz, Bilbon minbizia aztertzeko institutua sortzeko asmoa baitzegoen. Alemanian Justo Garatek Hitlerrek emandako hitzaldi batera joateko aukera izan zuen. *"Hitlerri etnia desberdinetako gurusoak zituztenak dege-*

neratuak direla entzun nion esaten. Komentario hori basakeria iruditu zitzaidan".

1930ean A.N.Vtik diputatugai izan zen, baina ez zuten aukeratu. 1936an Guda Zibila hasi zenean Justo Garate Basurtoko eritetzeko medikua zen eta 1937ko abenduaren 10ean, 5 hilabete Bruselasen eman ondoren, bere emazte eta semealabekin Argentinara exiliatu zen. Tandil hirian bizi izan zen lehenengo eta berak dioen bezala. *"1940an antolatu genituen Argentinan ospatzen ziren leben Euskal Jaiak. Jai horiek euskal exiliatuek zituzten gastuak ordaintzeko egiten genituen"*.

kondu zituen. Urte berean Basurtoko ospitalean ikasle interno izan zen eta Ateneo Nacionalista Vascorea joaten hasi zen. Han Luis Elizalde, Jesus Leizaola, Ramon de La Sota eta beste batzuekin izan zen. 1923an Medikuntzan lizentziatu zen eta 1924an beka bati esker Alemaniara, Freiburgera hain zuzen ere, joan zen Doktoretza tesia amaitzera. Freiburgen kimikako Nobel Saria irabazi zuen Bielefeld irakaslearekin ikasteko aukera izan zuen. Parisen, Berlinen eta beste hainbat tokitan ikasten ibili ondoren, 1927. urtean Madrilen, tesi doktrala aurkeztu zuen eta bikain nota eman zion epaimahaiak.



Gaspar

**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF SERVICE-A**

Barrenkale 31

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale 15, Tfnoa: 76 25 03
BERGARA

Joan den asteazkenean Mendozara Justo Garate zenaren etxera deitu genuen eta han Nerea Garate bere alabak, hartu zigun telefonoa.

- Noiz hil zen zure aita?

- Joan den larunbatean eguerdiko 13.45tan eta 17.15etan ehortzi genuen Mendozako kanposantuan. Hileta elizkizunak azkar egin behar izan genituen, gure ama ez konturatzeko, bihotzetik gaizki dagoelako.

- Nola pasatu ditu azken hilabeteak?

- Urtarriletik hona poliki poliki emendatzen joan da. Baina beti eduki du gogoan Bergara. Dua la 3 aste edo Bergarara joateko gogoia agertu zuen eta denon artean azaldu behar izan genion ez zela posible. Halere oraindik irakurtzen jarraitzen zuen eta gimnasia ere egiten zuen. Baina hil baino hamar egun edo lehenago ez zuen jaikitzeke gogorik. Bergaran ehorztea ere pentsatu dugu, familiak panteoi bat du eta. Baina azkenean Mendozan geldituko da.

- Mendozan nola hartu dute berri txarra?

- Telegrama eta dolumin ugari jaso ditugu. Kontutan izan behar da nire aita beti lanean ibili dela. Izatez oso langilea eta baikorra baitzen eta Mendozan bi belaunaldi-

Nerea Garate, Justoren alaba:

"Aitaren nahia bizitzako azken egunak Bergaran igarotzea zen"

ren mentorea izan da. Pertsona apreziatu eta errespetatu izan da eta hori lortzea oso zaila da hemen. Kultura askotako jendea bizi gara elkarrekin eta elkarren arteko ikusiezinak asko dira.

- Ze harreman zitu- en Bergararekin?

- Beti gogoratzen zen bere jaioterriaz eta Victoriano Gallastegi alkatearekin harreman estua zuen. Aurretik Antonio Urcelayrekin asko idazten zen. Nire aitak Urcelayri, Bergarako "kronista" deitzen zion. Orain berak hasita zituen lanak ordenatu eta sailkatu beharko ditugu.



Nerea Garate, bere aitaren alboan.

Bergarako seme kuttuna

Bergarako Udalak berri txarra jakin bezain laister telegrama bat bidali zion Justo Garateren familiari. Telegraman Udalbiltzar osoaren izenean zera esaten zen. "Bergarako seme kuttuna, gizon zintzo eta jatorra, benetan euskaldun haundi bat hil zaigu. Bergarako Udalbatzaren izenean gure doluminak bere senitartekoei". Horrezaz gain Udaleko agintariek Justo Garate herriko seme kuttuna izendatzeko asmoa dute eta bere izena egiteko dagoen plaza bati jartzekotan dabilta. Victoriano Gallastegi alkateak Garaterekin zuen harreman estua azpimarratu digu. "Hemendik berari bidaltzeko gauza asko eskatzen zizkidan eta horrezaz gain, Bergararentzako proiektu ugari zituen. Etorkizunari begira Justo Garatek bidalitako hainbat dokumentorekin bilduma bat egin genezake".

FERNANDEZ

 **Oihal puskak
Oihalak**

San Antonio, 3 Ibargarai, 2
☎ 76 22 93 ☎ 76 53 22



Zatoia
Boutique

Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14



Merzeria - Lenzeria

D. Irala 5, Tfnoa: 76 25 69



**JUSTO GARATE,
ZINEZKO
BERGARAR BAT**

Justo Garate zenaren heriotzaren albistea iritsi zaiguneko honetan ez noa bere kulturaren zabalaz, medikuntza-alorrean irabazi

eta lortutako ospeaz, bere idazlan jakingarriez, hizkuntzari eta batipat toki-izenei buruzko bere ikerketa baliotsuez ihardutzera, alderdi horiek aztertzeke abagunerik izango da eta.

Gaurko honetan, benetako adiskide nuenaz oroitzean, berak uneoro hitzez zein idatziz aldarrikatutako gure herriarekiko atxikipena aipatu nahi dut bereziki.

Bere atzerri-alditik lehenengo aldiz itzuli zenekoan agitutako batez gogoratzen naiz. Bilbon agurtzera joan nintzaionean berak horretarako asmoa azaldu, eta nere etxea izan zuen, bere

emaztearekin batean, Euskal Herriko bere harremanak gaurkotze-aldian atsedena eta egon-leku. Haietako egun baten Bilbora joan beharra gertatu eta elkarrekin abiatu ginenean, Barrutin eta Erroterdin hasi, eta ia errepide-inguruko baserri bakoitzaren aurretik igarotzean, horien izenez gainera

**Uneoro hitzez
zein idatziz
aldarrikatutako
gure herriarekiko
atxikipena aipatu
nahi dut bereziki**

bertako familietako kideenez gogoratu, eta Uberarainoko guztien berriak eskatu zizkidan.

Batxiller-ikasketak bukatu zituen gero esateko Bergararik kanpo egon ondoren, ia hirurogei ta hamar urteren buruan beraz horiek gogoan izateak, argi bai argi, gure herria ezpainetan ezetik bihotz-muinean ere ba zeramala erakutsi zidan.

Zinez itxadoten zuen betiko atsedena izan beza bere burua beti benetako bergar agertu zuen herrikide ospetsu eta gomutagarriak.

Josu OREGI

JUSTO GARATE ARRIOLA HIL DA!

BERRIGARatik jaso dudari baten bidez izan dut albiste triste honen berri. Beraren omenezko lerro batzuk idazteko eskatu didate eta egin ere gustora egingo dut 1900eko abuztuaren 5ean Barrenkaleko 27an jaio zen bergarar ohoregarri honekin lotzen ninduen adiskidetasun eta begiruneagatik.

Ez zen luzaroan bizi izan Bergaran, baina bere jakinmin eta oroimen izugarriari esker, zehatz-mehatz gogoratzen zituen ezagututako leku eta pertsonak. Bergararra zen eta bergarartasun hori bizileku zein idazlan guztietan isladatu zuen, azken hauetan historia, toponimia edo pasadizoak direla medio behin eta berriro egiten duelarik Bergararen aipamena, batzuetan bere izenarekin, besteetan "Elorregi" edo "Eneko" goitizenekin.

Ezinezkoa litzateke horrelako gizon baten jakinduria lerro gutxi batzuetan laburbiltzea, zeren eta ogibidez sendagilea bazen ere, beste hainbat arlotan ere ihardun baitzuen, etnografian, filologian, geografian, toponimian eta euskeran besteak beste. Zortzi-bederatzi hizkuntza

menderatzen zituen eta Humbolt-en lanak itzuli zituen euskerara. Beraren erabateko prestaketa profesional eta humanistikoa ikusita, Jiménez Díaz doktoreak esan zuen Garate doktorea inoiz ezagutu zuen sendagilerik ikasiena zela.


Basurtoko Ospitaleko barruko sendagile zela Bilbon jarri zuen kontsulta, geroago Paris, Londres eta, batez ere, Alemanian ikasketak sa-

konduko zituelarik. 1936an, Gerra Zibilean zegoeneko, Juan Viar eta Julián Guimón doktoreekin batera Medikuntza Fakultatea sortu zuen Jose Antonio Agirrek zuzendutako Eusko Jaurlaritzaren aginduz. 1937an Argentinara alde egin beharrean aurkitu zen, lehenengo Tandilera eta gero Mendozara, bertako Unibertsitateko Patologi Kliniko katedra eskuratu zuen elarik.

1921ean, orduan Aberri-ren aurka zegoen Comución Nacionalista Vascan afiliatu eta politikagintzari ekin zion. Halere, 1930ean Bergaran gauzatutako bateratzearen ondorioz, beste zenbaitzurekin Acción Nacionalista-ra pasatu zen, noiz edo noiz legebiltzarkidegai ere izan zelarik.

Lerro xume hauek bere pentsamentu eta usteei tinko eutsi zien gizon on honen izaera ikaragarriaren islada izatea nahi nuke eta, bide batez, jaso ditzatela beraren senideek eta, batez ere, Itziar Arostegi emazte, adiskide aldentezin eta laguntzaile eraginkorrek Bergara osoaren doluminik zintzoenak.

Jose Antonio ZABALA



**Zortzi-bederatzi
hizkuntza menderatzen
zituen eta Humbolt-en
lanak euskaratu
zituen**

Merkatu berriko aparkalekuetan OTA zerbitzua jartzeari zer erizten diozu?



Arantza Egiguren
32 urte, langabetua

Ez dut uste behar-beharrezkoa denik, neurri gogor xamarra iruditzen zait.




Jose Antonio Mendikute
53 urte, langilea

Ondo. Kontrolen bat egon behar da bestela jendeak egunetan edukiko luke kotxea aparkatuta eta sartu-irtenak egiteko ez litzateke tokirik egongo.



Begoña Fernandez
50 urte, etxekoandrea

Nahikoa ordaintzen dugula uste dut, zerbitzu horiek doanekoak izan beharko lirateke.




Pedro Puche
68 urte, jubilatua

Egun konkretu batzuetarako, zapatu edo domeketarako ondo iruditzen zait, baina egunero-egunero jartzea ez dut uste beharrezkoa denik.



Begoña Ugarte
57 urte, langilea

Oso ondo, guztientzat tokia egon dadin neurri egokia iruditzen zait, baina herriko beste kale batzuetan jartzea ez nuke begi onez ikusiko.



Felipe Oregi
65 urte, jubilatua

Ez zait ondo iruditzen. Aparkalekuak egitea ondo dago eta beharrezkoak dira gainera, baina dirua batzeko horrelako zerbitzua jartzearen kontra nago.

EGUZBITZA ERRETEGIA

- BERRIZ ERE ZUEKIN
- ABUZTUAN ZABALIK
- EGUNEKO MENUAK
- KARTA (EHIZAN ESPEZIALIZATUAK)
- ENKARGUAK HARTZEN DITUGU


Aranerreka, 30 Tfnoa: 76 56 03



ARGAZKIAK ORDUBETEAN

- ✓ Diapositiba errebelatzeak.
- ✓ Karneterako argazkiak momentuan.
- ✓ Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- ✓ Jaunartze, bataio eta ezteietako erreportaiak.

Kruz Gallastegi, 2 ☎ 76 00 50



Gendarmea

Txirrindulari lasterketetako polizia eta antolatzailak helmugako arrasto atzean argazkilariei eutsi ezinda ikusi ditugu mila bider eta horra hor joan den domekan Tour-eko gendarme batek zer egin zuen. Helmuga baino ehun metro lehenago, bere lanak eskaini zion aukera paregabea aprobetxatuz, argazkiak ateratzen hasi eta azelakotxe istripua eragin zuen. Ez zitzaion ezertxo ere falta izan munduko sprinter gehienak ospitalera bidaltzeko. Laupabost behintzat eraman zituen. Berak ere kolpe txakurra hartu zuen, 70 kilometro orduko abiaduran zetozen pertsonak jota. Ez nuke haren narruan egon nahi.

Beti galdetu izan diot neure buruari zer egiten duten hainbeste gendarmek hesien kontra ilaran jarrita, ze zaintzen egoten diren... Istripuak berak ematen du esplikazioa: sarri agertzen da buruarinen bat. Domekan, hesien kanpokaldetik egon beharrean barrukaldetik zegoen eta ez dut uste Tour-aren antolatzailen errua izan zenik. Hori behintzat ez.

Beharbada, guztiok kontu gehiago izan beharko genuke txirrindulari lasterketetan, bai antolatzailak, kazetari, argazkilaria, ertzain eta ikusleek. Nelissen, Jalabert eta gendarmea bera domekan berriz jai zirela esatea gehiegikeria izan daiteke, baina nik gogoratuko nuke Agostinho zaharra helmugarako metro batzuk falta zirela txakur batek eragindako istripuan hil zela. Eta Agostinho, jeiki eta helmugaraino heldu zen egun hartan.

Joseba LEZETA



Etorkizun iluneko etxea

Esamesik asko sortu da azken aldian Errege Seminarioko edifizioaren mantenimentuaren inguruan. Mantenimentuaren inguruan, eta ez jabetzaren inguruan, hori garbi baitago Eusko Jaurlaritzarena dela nahiz eta ez duen garbi aitortu nahi konpontzeak eskatzen duen dirutza haundiagatik.

Egoera horretan, pentsatzekoa da Bergarako Udalak edifizio hori Udalaren jabetzara bihurtu beharra izan dezakeela azken aldian lokal kultural berriak egokitzeko izan diren eskariei erantzun ahal izateko.

Urrutiago joan gabe, hortxe dugu orain dela aste gutxi herriko hainbat kolektibok udal auditorium bat moldatzeko egin duten eskaria.

Gainera, lokala Udalarena izango balitz bai UNED-ek eta baita Aranzadi ikastolak ere argiago izango lukete zer egin: bertan jarraitu edo beste tokiren batetara irten.

Arazo bakarra ekonomikoa da, izan ere Bergarako Udalak ez baitu eraikinaren jabe egin nahi beste erakunde batzuk ez baldin badute egin beharreko konponketak egiten laguntzeko konpromisurik hartzen, edifizioa dagoen moduan hartzea ikaragarritzko zama hartzea izango litzateke eta.

Eta zenbakiek hankaz gora bota dituzte momentuz bergarar askok etxe horretan jarriak zituzten ilusioak.

Juan Antonio MIGURA



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea

Elena
★

Tfnoa: 77 14 24

MARGO ERAKUSKETA



Benita Gallastegi Galarza
Kimu

NAHIKARI

Taberna

Masterreka, 20 BERGARA ☎ 76 57 71



Dani Santosek lehen saria lortu du zuribeltzean "Arnes" lanarekin.

Ajuria zarautzarrak eraman du bigarrena ("Lehena geroari begira") eta Koldo Gálvez bilbotarrak ("Movimiento IV") hirugarrena. Jose Aguayo izan da herriko onena "Vuelo" lanarekin. Sari banaketa bihar 6etan izango da Kultur Etxean eta lan onenen erakusketa uztailaren 17ra arte egongo da ikusgai.

Kirol argazkiak

Kirol Argazkien IV. Lehiaketan, Daniel Santos bergararrak zuribeltzeko kategoriako lehen saria lortu du "Arnés" izenburuko lanari esker; bigarren Berangoko Javier P. Fernández ("Idi-probak") sailkatu da, hirugarren Benito Cantero bergararra ("Contraluz") eta herriko onena Dionisio Nogales ("Pelota") izan da. Koloretan, berriz, Jesus R. Rollan amurriotarrantzat ("Artazika") izan da lehen saria, Aitor

Aranzadiko zozketa

Aranzadi Ikastolako 8. mailako ikasleek ikas-bidaiaren alde antolatutako zozketan, 4.892 zenbakia izan da saritua. **Carmen Martínez De Arcos** eta **Félix Martínez Garrido** senar-emazte bergararrak genituen boletoaren jabeak eta, sari gisa, Mallorcako hotel batean astebeteko egonaldia eskuratuko dute. Atzo bertan hegazkinez Mallorcara joan ziren eta uztailaren 15era arte bertan izango dira bertako paisaiatz eta eguzkiaz gozatuz... Hori suertea hori!!



Carmen Martínez eta Félix Martínez boletoa saldu zien ikaslearekin.

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak
 Errioxako ardoak, olioak,
 esnea, lejiak...
 Martokua 32, tfnoa: 764594



LASA
Jatetxea
 Bidekurutzeta 36, ☎ 76 10 55 / 76 20 29



"Memín" en omenezko astea

Jende ugariarekin izan dira astean zehar **Iñigo Martínez "Memín"** zenaren oroimenez antolatutako ekitaldi ezberdinek: zinea airea librean, kalejirak, musika emanaldiak (argazkian asteazkeneko jazz kontzertua Pol-Polen), gau tertuliak... Gaur ostirala, jaialdi ekitaldia izango da 7etan Mariaren Lagundian eta biharko Irukerutzetara mendi irteera iragarri da. "Memín" en oroimenezko harria inauguratuko da eta jarraian lagun eta familiartekoen bazkaria izango da.

Gora San Fermin!

Azken urteotako ohiturari eutsiz, **Udalekuetako** neska-mutilek San Fermin eguna ospatu zuten atzo osteguna, dultzainero, pregoi, txupinazo, entzierro eta guzti. Eguerdian Plazan bildu ziren herritarrek San Fermin giroaz gozatzeko aukera izan zuten, Udalekuetako arduradun eta ikasleak periodikua eskuan eta dotore-dotore txuriz eta painuelu gorritz jantzita azaldu bait ziren. Aurtengo Udalekue-tan 3. mailatik 8. mailara bitar-teko 270 neska-mutil ari dira.



Zertan dibardute ba?



Asier Garitano 24 urteko futbolari bergararrak 2.B mailako Cádiz taldean jokatu du datozen bi denboraldietan. Asier astelehenean bertan abiatuko da Cádiz aldera eta asteartean entrenatzen hasiko da Cacho Herediaren (Atlético de Madriden egondakoa) agindutara. Berarekin batera iaz Cartagenan ibilitako Pino, Zapatera eta Rafa Bonok ere Cádizekin fitxatu dute. Asier Garitanok esan digunez, *"ilusio haundiz noa Cádizera, talde ezaguna baita eta gainera zenbait jokalaria ezagutzen ditudalako"*. Orain bi denboraldi andaluziarrak lehen mailan izan ziren.

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka 4, behea ☎ 76 18 93

- Ateak, zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioa
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

Julian Salsamendi

1902.eko Errege Egunez jaioa, Julian Salsamendi bergarra hainbat ofiziotan ibilia da, tartean Larrañaga Goxotegian konfitero. Pelota eta mendizale amorratua, 70 urte daramatza Frontoian akomodadore.

- Oraingo ala lehengo pelota?
- Lehengoa, lan gehiago izaten zen tantuak bukatzen.
- Pelotaririk onena?
- Atano III.a modukorik ez da izan.
- Eta zu zeu pelotari ona zinen?
- Ez, baina neri tantoa sartzea gaitza zela esaten zuten.
- Pelota, banaka ala bikoteka?
- Ikusteko bikoteka politagoa.
- Sake librea ala oraingoa?
- Lehen bezala, "habilidad libre".
- Pelota biziak ala motelak?
- "Punto medio".
- Arretxe ala Errandonea?
- Errandonea.
- Frontoira doan jendeak badaki pelotaz?
- Bai, nahiz eta batzuk "a ganar pesetas" joan.
- Ikusitako aposturik fuerteena?
- Ez gara horretaz enteratzen...
- Aposturik egin izan duzu?



"Atano III.a moduko pelotaririk ez da izan; bikotekako partiduak gehiago gustatzen zaizkit eta banakako finala Errandoneak irabaziko duela uste dut. 92 urtera osasuntsu heltzeko sekretu bakarra normal bizitzea da"

- Orain 70 bat urte Cantabria de Ermua eta Txikito de Azkoitiaren arteko partidu batean, orduko peseta bat jokatu nuen eta oraindik ez dut kobratu...

- Pelota kazetari bat?

- Don Juan de Irigoien (La Gaceta del Norte), Pacorro (La Voz) eta Jon Trueba (DV).

- Anekdota bat?

- Behin Zapaterito de Lekeitiok "pelota blanda" bat eskatu zion Frontoiko "balatero"ari. Honek zera erantzun zion: "Tengo en casa blandiendo".

- Osasuntsu egoteko zer?

- Normal bizi.

- Goxozalea zara?

- Ez. Orain ez dut probatu ere egiten, bakarrik Errege Egunean.

- Tostoiak ala errellenoak?

- Errellenoek fama handia daukate "en toda España y más lejos también".

- Datorren denboraldian ere akomodadore?

- Ahal badut bai behintzat. Tente baldin banago...

- Zenbat urtetara iristeko asmoa?

- "Hasta que Dios quiera". Tonetik esaten zuenarekin akordatzen naiz. Beti kexu zebilen: "No hay derecho! Para vivir así más vale no morir nunca!".



UNED-Bergara

San Martin Plaza z/g,
BERGARA
Tnoak: 76 13 42 / 43

EZ ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK:

EGA, SAKONTZE I eta II Maila, Psikomotrizitatea, Master Gerontologia Psiko-Sozialean.

ARAUTUTAKO IRAKASKUNTZAK:

Sarrera ikastaroa, Zuzenbidea, Geografia eta Historia, Hispaniar Filologia, Ekonomi Zientziak, Enpresa Zientziak, Fisika Zientziak, Matematika Zientziak, Kimika Zientziak, Industri Injenieritza, Politika Zientziak, Soziologia, Psikologia, Hezkuntz Zientziak.

AURTENGO BI BERRIKUNTZAK:

Gestio eta Sistemetan Injenieritza Teknikoa.

Lehenengo aldiz matrikulatu nahi duenak, aurreinskripzioa egin beharko du uztailaren 29a baino lehen. Behin eskaera onartu ondoren, matrikula egin beharko da irailaren 20tik urriaren 17ra arte.




zumelaga

JATETXEA

ADRIAN ARRESE-IGOR

San Antonio 5
BERGARA
☎ 76 20 21



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66



Galde debalde

LUIS MIGUEL DE BENITO

Azken Galde Debalden ekaineran 22an udan sartu ginen egunean, zein ordutan sartu galdetzen genizuen.

Erantzuna: **16.48etan** zen.

LUIS MIGUEL DE BENITOk jarri du erantzun zuzena eta berari tokatu zaio aste honetako saria. Berarentzat izango da, beraz, **SANTOS**ek emandako saria.

Zorionak **LUIS MIGUEL**i eta besteok segi jokatzeko, ea hurrengoan suerte hobea duzuen.

SANTOS

IRRATI-TB

SALMENTA ETA ZERBITZU TEKNIKOA

Koloretako TB, bideoa, soinua,
elektragailuak, antenak, sukaldeak
altzariak, argiztapenak...

Masterreka 2, BERGARA
Tfnoa eta faxa: 76 26 10





JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 16



LUIS ANGEL DE BENITOK jaso du aste honetan SANTOsek emandako saria.



ARGAZKI

Barrenkale 16, Tfnoa: 76 20 66

Hurrengo Galde Debaldeko saria ARGAZKIk emango du.

Galde Debalde

Aste honetako galdera:

Datorren astean Antzuolako jaiak ospatzen dira. Jakina denez Mairuaren agerraldia da Antzuolako jaietako ekitaldirik azpimarragarriena. Mairuaren agerraldia, Gezalagako aranean izan zen Valdejunquera edo Yuncadiako bataila ospetsuaren omenez egiten da Antzuolan. 920. urteko uztailaren 26an izan zen borrokaldi hura. Aurten, uztailaren 16an, zapatua, egingo da Mairuaren Agerraldia, baina lehen, orain dela urte batzuk, abuztuan egiten zen. Honako hau duzue aste honetako galdera.

Zein egunetan egiten zen lehen, Mairuaren agerraldia?




izena

abizena

telefonoa

OHARRA: Asmatzailerik azalduko ez balitz, hurrengo GALDE DEBALDEN bi sari egongo lirateke



IPINTZAKO

nagusiendako III. futbol txapelketa

Paok de San Juan eta Amilotxen arteko finala gaur



Paok de San Juan. Aritz Beistegi, Igor Basauri, Igor Legazpia, Jose Ramon Iturbe, Jordi Prat, Eduardo Iñarra, Aitor Ibarra eta Aritz Aranguren. Makurtuta: Gotzon Arzelus, Aser Polvorosa, Mikel Arregi, Ibon Mujika, Garikoitz Arregi eta Xabier Elkoro.



Amilotx. Jose Ramon Etxeberria, Alex Odriozola, "Baito", "Txabolas", Alberto Zurro, Luis Garitano, Alex Madariaga, Jose Jabier Agirre, Enrique Nieto eta "Piti" Unamuno. Makurtuta: Lazkano, Larrañaga, Felix Saez de Maturana, Felix Barrocal, Jaime Altolagirre, Isaak lazcano, Juan Carlos Urriolabeitia eta Mikel Azkarate.

• emaitzak •

OSINTXU • PAOK **1 2**
OGIZUN • AMILOTX **0 2**

• finala •

19.00: Osintxu-Ogizun (3. eta 4.a)
20.00: Paok-Amilotx (finala)

• komentarioa •



Jose Joaquin GOMEZ

"Amilotx eta Ogizunen arteko finalerdia irabazten duenak eskuratuko du txapelketa. Paok asko borrokatzen duen taldea da baina ez dut txapeldun ikusten. Bestalde, Mongatxurrengandik zertxobait gehiago espero nuen eta, Txipironek, berriz, maila haundirik gabe oso emaitza onak lortu ditu. Maila ona egon da".

• golegileak •

4 GOL:

- Iban Agirrebeña (Altos Pornos)
- Fernando Salinero (Ogizun)
- Alex Odriozola (Amilotx)

3 GOL:

- Saez De Maturana (Amilotx)
- Bittor Jimenez (Altos Pornos)
- Xabier Elkoro (Paok)
- Santi Fernandez (Ogizun)
- Alex Odriozola (Amilotx)
- Enrique Nieto (Amilotx)
- Mikel Uribesalgo (Amilotx)
- Alex Odriozola (Amilotx)
- Jose M. Romero (Ogizun)
- Garikoitz Arregi (Paok)



INGURUKO MENDIETAN

astebukaerarako aukerak



Atxarte-Anboto-Urkiola

Atxartera hurbiltzeko kotxea hartu eta **Elorriorantz** 7 kilometro jarraituz ezkerretara dagoen bidegurutze bat hartu behar da, **Mendiolarantz**. Hiruzpalau kilometro egin ondoren **Atxarteko kanteretan** aurkituko gara, pare-taz inguratutako zirko bat dirudien eta eskaladoreen paradisu den leku zoragarri honetan.

Bertan kotxea aparkatu daiteke baina hautsez bete ez dadin zubi bat igaro eta 150 metrotara dagoen aparkaleku txiki batean aparkatzea hobe da, lekua baldin badago behintzat.

Aparkaleku honen ezkerretan dagoen bidetxurra hartu eta **Pol-Poleko iturri-rantz** abiatuko gara **Alluitzeko hormak** ezkerrean izango ditugularik. 20 minututara erromara bat zeharkatu eta zelaiari gora jarraituko dugu. Aparkalekutik hasi eta ordu eta laurden ibili ondoren 3 pasealeku dituen beste erromara bat zeharkatu eta pixkat aurrerago **Pol-Poleko iturria** ikusiko dugu. Lasaialditxo bat egin, burniura dastatu eta **Anbotorantz** joko dugu.

Iturritik bertatik irteten den bidetxurra edo gorago doan pista jarraituz **Anbотора** doan kartela ikusiko duzue (31'). Ez zaitezte larritu denbora gehiago behar baduzue gailurrera heltzeko. Gogoratu, gailurrean gazte sentitzeko onena aldapa agure zahar batek bezala igotzea da.

Anboto gaina gainditu eta zerbait jan ondoren itzultzeko ordua heldu da. Iturrira leku beretik jaitziko gara. Bertara doan pista jarraituz eta iturriaren ondoan dagoen aterpetxo baten paretik pasatuz **Urkiolako Santutegira** joango gara. (40')

Nobixo edo nobixarik ez dutenek Urkiolako Santutegiaren aurrean dagoen meteoritoari (harri zati bat) bueltak emanez zerbait lortu dezakete, hala diote behintzat

Nobixo edo nobixarik ez dutenek Santutegiaren aurrean dagoen meteoritoari (harri zati bat) bueltak emanez zerbait lortu dezakete, hala diote behintzat.

Orain **Atxartera** itzultzea besterik ez zaigu falta. Horretarako kurutzebidea deritzoten ikuspegira joango gara; bertatik **Unzillaitz** mendi paregabea ikusiko dugu.

Beherago dagoen erromara zeharkatu eta bidetxurretik jarraituz bidera irtengo gara berehala. Bidean 25 metro egin eta eskuman dauden eskailera batzuetatik jaitziko gara, berriro ere bidera irten arte. **Txakurzulo tabernan** aurkitzen gara. Hemendik beherantz begiratzuz ikus daitekeen lehen baserrira joan, ate ondotik pasatu eta eskumako bidetxurra jarraituz 20 minututan **Atxarten** gaude.

POL-POL Mendizale Taldea



Atxarte: ezkerretara Unzillaitz eta eskumatara Haitz-txiki.


PIRAGUISMO TRABESIA

Beti-Busti Bergarako pira-guismo taldeak antolatuta, igande honetan, uztailak 10, goizeko 10etan, Satur-raran-Deba lehen itxas-bidaia jokatuko da. Bertan parte hartzeko interesa dutenek aurrez izena eman dezakete Bergarako Kayak tabernan (Matxia-tegi 3, 76 03 29 telefono zenbakia) edo egun bere-an 9.45ra arte Saturrango hondartzan.

Eguerdian, proba amaitu-takoan, kayak-surf espe-zialitatearen erakustaldi bat izango da eta ondoren lunch bat banatuko da. Igandeko proba, Gipuz-koako Piraguismo Fede-razioaren laguntzaz, Gi-puzkoako Jolaseko Pira-guismo Zirkituaren barru-an kokatzen da.

JOSE LUIS BEITIA SORALUZERA

Jose Luis Beitia Bergara K.E. futbol talde nagusiko entrenatzaile ohiak lehen errejional mailako Sora-luze taldea zuzenduko du hurrengo denboraldian. Soraluzeke, Bergarako le-hen errejionalarekin ba-tera, jeitsiera postuetatik ihes egitea lortu zuen au-rreko denboraldian.



HERRI OLINPIADAK



Aste honetan hasi dira V. Herri Olinpiadak. Asteartean Jubilatuetan bolotan jokatzen aritu dira partehartzaileak.

YSAILKAPENAY

1. **Altes Pornos** 180
2. **Zoropotrondoak** 150
3. **Xorrupak** 135
4. **Diskrepo Peñi** 130
5. **Zoko Toko** 105
6. **Shaktale** 100
7. **Mongatxurrak** 95
8. **In The Garden** 85
9. **The Avelinos** 70
10. **Txakarrenak** 70
11. **Ganba Txungoa** ... 65
12. **P. Ta Zapaburuak** . 30
13. **Knickers Down** 30
14. **Txe Bergara** 20

YDATORRENASTEKOJOKOAKY

- Astelehena:** Erlojuaren aurkako bizikleta lasterketa Poligonoan
- Asteartea:** Mahai jokoak Plazan
- Asteazkena:** Eskoba-Hockeya eta Zapi jokoa Seminarioan
- Osteguna:** Boleibola Poligonoan
- Ostirala:** Herri kirolak Plazan

TOKI-ONA
Bodegoia-Taberna
 Eguneroko janariak / Txitxizotzak
 Kazolatxoak / Txabierroak
 Matxiategi 1, Tfnoa: 76 39 53

anezka
 Udazkenerako oihalak
 eta lenzeria
 Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25

MUGICA
 Goxotegia

 pastelak,
 errellenoak,
 tostoia, tartak...

Artekale, 3
 ☎ 76 10 34



San Migel-Peko futbol taldea, 1958

San Migel-Pe elkarteko futbol taldeak irabazi zuen 1958an Bergaran jokaturako herriko futbol txapelketa. Orduan partiduak Altos Hornoseko futbol zelaian jokatu ziren eta ekipo mordoxka bat aritzen zen lehian. Dugarik ez, maila haundiko txapelketa izango zen hura, San Migel-Pekoak masaje-emale gaztetxo eta guzti agertzen baitira goiko argazkian. Txapeladunen argazkia oraingo Beti-Alai eta lehen San Migel-Pe elkartearen zenean aterata omen dago. Horra hor ezkerretik eskumara agertzen diren futbolari gazteak, kopatxoa eta lore-sorta Maria Anjeli Zaitegi neskatilarengandik jasotzen, arro-arro:

Goian: Luis Mari Ilarduia, Jose Luis Gallastegi, Felix Biain, Fernando Agirre, Jose Andres eta Arietaleaniz.

Behean: Javier Pagaldai, Aretxaga, Juan Mari Agirre, Jose Mari Leturia, Javier Madariaga, Fabian González, Maria Angeli Zaitegi eta Jose Mari Gallastegi.

Argazkia: Maria Angeli Zaitegi

BERGARA
Karrozeria

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

LETE

TOLDOAK

Zubieta, 36 ☎ 76 12 24
☎ 76 23 83 ARRASATE

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES
Kafea da gure berezitasuna
Zubieta 26, BERGARA

ETXEBIZITZA

Pisua salgai Donostin, Amara Berrin. Eguzkitsua. ☎ 46 36 53 (19-22.00).

Garajea salgai Torreku-an. ☎ 76 18 82.

Pisua salgai Artzamendi-n. ☎ 76 44 60.

Pisua salgai Bolu 18an. 120 m2. ☎ 76 19 17.

Pisua salgai Zubiaurren. ☎ 76 25 19.

Garajea hartuko nuke **alokairuan** Tokiederren. ☎ 76 52 45.

Zubiaurren **pisua aloka-tzen da**. ☎ 76 13 85.

Garajea salgai Ibargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Oporrak Zarautzeko etxe batetan igarotzeko aukera. ☎ 13 28 49.

Pisua salgai Martokon. ☎ 76 14 60.

Pisua salgai Zubiaurre 23an. ☎ 76 31 49.

Pisua salgai Artzamendi 17n. ☎ 76 10 55.

Matxiategin pisu amueblatua alokatzen da. ☎ 76 46 15

Pisua alokatzen da San Pedro 22an. ☎ 76 13 23.

Garajea salgai Ibargarain. ☎ 76 36 69.

Pisua alokatzen da **Ja-can**. ☎ 76 43 98.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. ☎ 76 48 36.

DENETARIK

Bergaran pisua konpartitzeko neska bat behar da. ☎ 76 30 09 (Araceli).

Opel Kadett 1800 salgai. SS-AH. ☎ 76 58 28.

Kanpin denda haundia (8 pertsona) salgai. ☎ 76 26 73.

Enkuadernatzeko **prensa** erosiko nuke. ☎ 76 58 28.

Erleak saltzen ditut. ☎ 76 34 28.

Kanpin denda (2 gela eta portxea) salgai. 2 urte. ☎ 76 58 12.

Korredore **bizikleta** salgai. ☎ 76 54 24.

ESP Horizon bajoa eta Marshall JCM 800 anplia salgai. ☎ 76 56 61 (Ibon).

Sambo kanpin karroa salgai. Osagaiekin, egoera onean. ☎ 74 19 39 (Marisol edo Marian).

Jende famatuaren argazki orijinalak saltzen ditut (Guerrero, Alkiza, Sergio Dalma... etab). Idatz ieza-dazu eta eska zerrenda. Igor Galo, Zarauz Hiribidea 13, 3. ezkerre. 20009 Donostia.

Alfa Romeo 33 SS-AB **ko-txea** salgai. ☎ 76 02 01.

Musika ekipoa (150 w.) salgai. Mahaia eta bi bozgorailu. ☎ 76 62 16 (Ibon).

Sango kanpin-erremolke (2 logela) salgai. 150.000 pta.. ☎ 76 39 93.

BMW motoa (K-100 RS) salgai. ☎ 76 12 64.

Vespa 200 TX beltza salgai. ☎ 76 53 12.

LANA

OHO eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 17 85 (Asier).

OHO, BBB eta **LH** klaseak. ☎ 76 06 50 (Josean).

OHO eta **BBB** klaseak. ☎ 76 24 31.

Animaliak zainduko nituzke uztailean. ☎ 76 26 73.

Ingeles klaseak ematen ditut (Arantxa). ☎ 76 42 36.

OHO eta **ingeles** klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Matematika, fisika, kimika klaseak. ☎ 76 44 34.

Ingeles Filologian lizentziatuak, ingeles klaseak emango lituzke. ☎ 76 17 36.

Ingeleseko klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Klase partikularrak. ☎ 76 50 67.

OHO eta **BBB**ko klaseak. ☎ 76 42 08 (Nere).

Injenieritzako (1. maila) **fisika** klaseak emateko pertsona behar da. ☎ 76 41 31.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

Hildakoak

Sor María Asunción Quintero
ekainak 30, 79 urte
Ángela Manero López
uztailak 4, 90 urte

Jaiotakoak

Sara Manzano Larrañaga
ekainak 28
Ane Kortabarria Etxeberria
uztailak 2

Atsedeen zentrua

LOKARTU

Koltxoi-Denda

Orain SORALUZEN

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

ZUBIETA**elektragintza**

- ✓ Motorren bobinaketa
 - ✓ Era guztietako instalakuntzak
- Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48



UNITED COLORS
OF BENETTON.



BEHERAPENAK